

X. URTEURRENEKO ALE BEREZIA

# Pil-pilean


SORALUZKO  
HAMABOSTEKARIA  
146. alea, 2006ko  
abenduaren 22an

## PIL-PILEAN

19o. Astea

1996ko. Urterria

# 10 URTE





# GABONETAKO

# KARPIA

**22** barixakua 17:00etan



karaokia umientzat

**20** eguaztena 19:00etan



Musika Eskolaren kontzertua

**23** zapatua 19:00etan



Kontrargin argazki proiektiñua

**24** domeka 11:00etan



Olentzero eta Mari Domingi

**24** domeka 13:00etan



Ezoziko Ama  
Abebatzan kontzertua

- PIL-PILEANen ERAKUSKETA argazki, aldizkari eta karteekin
- PIL-PILEANen MATERIAL BERRIA salgai!!

Antolatzaileak: Musika Eskola, Atxolin Guraso Elkarte, Kontrargi Agazki Taldea, Plaentxi Herri Ikastetxea, Ezoziko Ama Abesbatza eta Pil-pilean Kultura Elkarte.  
Laguntzaileak: Soraluzeko Udala



SORALUZKO UDALA

## euskaragara GARDOfesta Pil-pileanen X. URTEURRENA

Abenduaren 27tik 31ra



**27** eguaztena

**Ezer ez ta festa!**

- Inauguraziñua 19:00etan
- Batukadarekin kalejira

**28** eguena

**Inuxente eguna!**

- Herri kirolak umientzat 17:00etan
- Tapiaren kontzertua 22:30etan

**29** barixakua

**Pariak bai eguna!**

- Umeentzat tailerrak 17:00etan
- Mus, tute, briska txapelketa 19:00etan

**30** zapatua

**Pil-eguna!**

- Ekitaldi nagusixa 13:00etan
- Bazkarixa\* 14:30etan
- Kantaldia Edorta eta Gartxotekin
- Kalejira Galtzagorri txarangarekin



**31** domeka

**Gaupasa eguna!**

Gabon zahar festa 00:00etatik aurrera



\* Bazkariko tiketak salgai Iratxo goxodendan eta karpan

Horrekin batera...  
**GARAGARDO FESTA**  
**5 EGUNETAN!!**

krepak, kroketak, txahal okela,  
lasaña begetala!



**PIL-PILEAN**  
EUSKARA ELKARTEA



MAITE NARBAIZA

## Ezberdintasunak aberasten gaitu

Denak gara ezberdinak, baina azken finean berdinak. Ezberdinak aspektu askotan, morenoak/rubioak, handiak/txikiak,..intelektualki ere badaude azkarragoak direnak eta ez hain azkarrak, ideologian zer esanik ez: ezkerrekoak/erdikoak/eskuinekoak, badira kanpokoak eta bertakoak... eta horrela beste sailkapen asko egin daitezke eta denok denon artean zein ezberdinak garen ikusten jarraituko genuke.

Hala ere, eta bakoitzak bere ezaugarri pertsonalak izanik, azkenean denoi eskubide, errespetu, tratu, etab..berdina zor zaigu. Denok daukagu besteagandik zer ikasi, handiak txikiarengandik, intelektualki azkarrak denak hain azkarra ez den baina agian inor baino maitakorragoa denarengandik, eskuinekoak ezkerrekoagandik, bertakook kanpotik datozenagandik... Errespetuan datza elkarbizitzeko konbibentziaren oinarria. Askotan, bestearen alde positiboa ikusi beharrean, ohituragatik

edo, alde negatiboa ikusten dugu errezago eta jarrera honek itsutu egiten gaitu harrituko gintuzketen gauza berriak deskubritzen utzi gabe. Gure arteko ezberdintasunak aberasten egiten gaitu elkar. Beste pertsonengan besteak daukan alde positiboa ikusten ahaleginduko bagina, aberasteaz batera, zoriontsuago biziko ginategi.

**BESTE PERTSONENGAN  
BESTEAK DAUKAN  
ALDE POSITIBOA  
IKUSTEN  
AHALEGINDUKO  
BAGINA, ABERASTEAZ  
BATERA,  
ZORIONTSUAGO BIZIKO  
GINATEKE.**

Orain Gabonak datozela eta, jendea orokorrean sensibleago egoten da, jarrera ulerkorragoa, positiboagoa edukitzen du. Ez da aukera txarra, ahalegin bat egin eta datorren urtetik aurrera, aurrean daukaguna beste begi batzuekin ikusten hasteko. Ez naiz inuzentea eta badakit nere jarduna xaloa, ingenuoa irudituko zaiola bati baino gehiagori. Hemen ez zaio inori eskatzen bere konbikzioak bazterrean uzterik. Ez. Elkar bizitza maitakorragoa zelan egin, horra lerro hauek amesten dutena.



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze  
Telefonoa 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio batzordea:** Edu Pombar, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Aitor Madrid, Jon Basauri eta Arianne Unamuno.

**Erredakzio burua:** Arianne Unamuno

**Erredaktoreak:** Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

**Publizitatea:** Ane Larreategi

**Logotipoa:** Jon Gabilondo

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Diseinua eta maketazioa:** KOH diseinu grafikoa  
**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** S5-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



### GEHIGARRIA

*Pil-pilean 10 urte, euskaraz eiiñ eta eiiñ erain*

## Zorion agurrak



**Aimar Perez**  
Abenduan 12xan  
2 urte  
**Zorionak potxolo!**  
Etxekuen partez



**Iria Martinez Rubio**  
Abenduan 20xan  
7 urte  
**Zorionak!**  
Etxekuen eta Narutoren partez



**Btisan Elkanouni**  
Abenduan 26xan  
7 urte  
**Zorionak politt hori!**  
Emilita eta Asunen partez



**Margarita Larrañaga**  
Abenduan 11an  
103 urte  
**Zorionak!**  
Lete eta Lacuesta familiaren partez muxu beroena, bereziki Edurneren partez



**Ianire Makinai Milan**  
Abenduan 16xan,  
8 urte  
**Zorionak potxola!**  
Segi holaxen.  
Gurasuen eta Izarren partetik



**Urko Aizpuru Aldazabal**  
Abenduan 3an  
3 urte  
**Patxo mundial bat danon partez**



**Xuban Catalan**  
Abenduan 30ian  
29 urte  
**Zorionak ligan!**  
Pil-pileaneko lagun zoro guztien partez



**Jon Basauri**  
Urtarrilan 5ian  
31 urte  
**Zorionak!**  
Orainarte bezain jator eta alai jarrai dezazun Pil-pileaneko sendia



**Enara Agirre**  
Urtarrilan 10ian  
24 urte  
**Zorionak guapa!**  
Kuadrilakuen partez



**Iban Gallardo**  
Abenduan 25ian  
26 urte  
**Zorionak!**  
Eiderren eta laguneren partez



**Ainitze eta Maialen Elizburu**  
Abenduan 18xan  
26 urte  
**Zorionak bikote!**  
Arrate txokolaten partez

## Gutunak

### Zortzikoak

Epa txo! gabon gabon!  
Ni ondo nao, ta zu?  
Ederto; eta horrela,  
segiduan entzuteko  
"Gabonetan edurra  
jausiko zan, DaDa  
Dada, gabonetan, La  
Doremifasola.  
Ondo pasatzera noa, ba!"

Gabriel Galan



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
[www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria)  
Buletinen harpidetza !!!

## Bekak

### • Afs-euskal interkulturako aniztasun beka

AFS-Euskal Interkultura. 15etik 18 urtera. Partehartzaileek euren ez den beste herrialde batean egingo dute ikasturtea.

**Iraupena:** 2007ko irailetik 2008ko ekainera bitartean.

**Epea:** 2007-12-31

**Tel.:** 94 4103914

## Lehiaketa

### • X. Xabier leizaola literatur lehiaketa

DEIA. 18 urtetik gora. Modalitate bakoitzean, 600,00 euroko saria. Bi modalitate daude: euskara eta gaztelania (bietako edozein hizkuntzez idatz daiteke)

**Epea:** 2006-12-31

**Telefonoa:** 94 4599100

[deiadigital@deia.com](mailto:deiadigital@deia.com)

## UDALAREN OHARRA

Soraluzeko Udalak jakinarazi nahi die herritarrei abenduaren 19tik urtarrilaren 2a arte Erregetxean egongo den Gabonetako karpa dela eta, gutxitu egingo dela aparkaleku kopurua. Hala ere, Udalak uste du jende askoren lanarekin antolatu den gabonetako ekintzen programa ederrak merezi duela leku txukun bat eta pentsatzen du herritarrek ulertuko dutela hartutako erabakia.

Erabaki horrek sor ditzakeen trabak eta lanak barkatzeko eskatu nahi die Udalak herritarrei.

Kultura Batzordea

## Jaiotakoak

- ILARGI ALBERDI CASARES
- XABIER AYERRA ARANA
- BEÑAT CALLEJA CRUZ
- NAIA MENDIA HERNAEZ

## Hildakoak

- ANGEL ARANDA BALAGA
- LUIS SANCHEZ ACEBES



## Zer irizten dotsazu?

X. urteurrenaren ospakizunak gainean ditugu. 10 urte luzez egindakoak hortxe daude, eta elkartearen inguruko zuen iritzia jaso nahi izan dugu.

# Ze iritzi dakazu Pil-pileanen gainian?



**Irene Alvarez**

14 urte

**Ikaslia**

Nere iritzixa ona da. Herriko barri eukitzen dogu eta beste hainbat gauza be bai, aldizkarixan bittartez. Pil-pileaneko dana gustatzen jata orokorrian.



**Lourdes Maiztegi**

56 urte

**Etxekoandria**

Primerako elkartia da. Aldizkarixa noiz urtengo zain egoten naiz. Euskeraz ondo jakin ez arren pazientziaz dana ulertu eta lehiaketetan be parte hartzen dot.



**Jon Lizarralde**

29 urte

**Langilia**

Daguan moduan primeran daguala uste dot. Aldizkarixa irakutzeko ohitturia badaukat eta elkarte moduan euskeria bultzatzen dabenez, gustora nago.



**Andoni Gomez**

8 urte

**Ikaslia**

Ona, baina aldizkarixan denbora-pasa gehixau faltan botatzen dot. Neri Ugaraxon atala gustatzen jata gehixen.



**Virginia Iriondo**

41 urte

**Etxekoandria**

Oso positibua! Pentsau bazkide be banaiz! Aldizkari-ttik erreportajiak gustatzen jataz gehixen. Gainera herrixan bertako euskeran idatzitako errebestia egotia, gauza edarra da.



**Iñaki Alberdi**

35 urte

**Kobratzailia**

Azken urtietan euskerian alde egindako apostu positiboa da, herrixan oso harrera ona euki dabena. Ekintza danak paregabekuak iruditzen jataz eta bertan parte hartzen dabenen lana da balorau biha dana.



**JATETXEA  
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



**Lakuesta**

**Optika**



Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 30 59

# Erregetxea ondare ondasun izendatu du Udalak

Erregetxean dagoen lursaila ondare ondasun izango da. Kalifikazio juridikoa aldatu egin du Udalak Gobernu Batzordearen erabakiz: lehen jabego publikoa zen eta orain

ondare ondasun izendatu dute. Izendapen berriari esker, hemendik aurrera Udalak nahi duen erabilpena eman ahalko dio 15.001,55 m<sup>3</sup> dituen lur zatiari.



# Kultur ekitaldiak haur eta gaztetxoentzat

Gabonetan kultur ekimenen eskaintza zabala izango dute ume eta gaztetxoek. Karpan egingo direnez gain, Udalak eta Atxolin Guraso Elkarteak ere kultur ekintzak antolatu dituzte. Txikienek liburategian antzerkia eta ipuin kontalaria izango dituzte abenduaren 27, 28 eta 29an goizeko 11etan. DBHko ikasleentzat zinea egongo da kapi-llan, 27an arratsaldeko 4etan eta 29an arratsaldeko 4 t'erdietan. Larunbatean, hilaren 30ean, haur par-

kea jarriko dute kiroldegian 11:30etatik 13:30etara eta 16etatik 19etara. Urtarrilaren 2, 3 eta 4 egunetan ludotekan eskulan tailerrak egingo dira. Irteerak ere izango dituzte: haurrak urtarrilaren 2an PInera joango dira eta gaztetxoak urtarrilaren 3an Txuri Urdira. Urtero moduan, urtarrilaren 5ean, Erregeen kabalgata egingo da arratsaldeko 19:00etatik aurrera eta ondoren kartak eman eta opariak jasoko dituzte umeek.



**AUTODETERMINAZIOAREN ALDE.** Abenduaren 16an Autodeterminazioaren aldeko ekimena egin zen Plaza Barrixan. EAK, SAHeK eta herriko hainbat talde eta pertsonak autodeterminazioaren alde hitz egin zuten.

## Kalebarren, bukatu gabe baina egokituta

Hasi dira Kalebarren kalean zementua botatzen eta adokinak jartzten. Gabonetarako ez dituzte lan guztiak bukatuko, baina egokitu egingo dute egun bereziotan ahalik eta oztopo gutxien egon dadin. Hala ere, autoentzat itxita jarraituko du. Datorren otsailerako bukatzea espero dutela adierazi du Udalak.



## Euskal Presoen Eskubideen aldeko Topagunea sortu da

Euskal Presoen Eskubideen alde elkargune bat sortu da herrian. Ekimen honek Ibaetako foroarekin abt egiten du eta sektore askorengana zabalduakoa da; sindikatu, kultur eragile, herriko talde eta banakako jendea batuko ditu. Abenduaren 23an, zapatuan, Plaza Barrixan ekitaldia izango da: 12:30etan salda eta txorixoa banatuko dute, eta horren ostean abeslariak, adierazpen publikoak eta topaguneko partaide guztien argazkia aterako dute. 31an manifa egingo dute.

## Debabarreneko taxiak prezioak igoko dituzte

Datorren urtarriletik aurrera, Debabarreneko taxi zerbitzuen prezioak %4,5eko igoera izango du. Asteburuan 7:00etatik 22:00etara gutxieneko tarifa 4,14 eurokoa izango da eta 1,03 euro kilometroa. 22:00etatik 7:00etara eta asteburutan, 4,51 gutxieneko eta 1,15 euro kilometroa.

## Afganistan argazkitan

Kontrargi Argazki Taldeak presatutako erakusketa ikusgai dago: "Afganistan, tragediari lehioa", Alen Silva argazkilaria. Kiroldegian egongo da abenduaren 30a arte, asteburuan 19etatik 20:30etara eta zapatutan 12etatik 13:30etara.



# Atxotegi Gipuzkoako finalera

Aitor Atxotegi pilotariak Gipuzkoako finala jokatuko du Loiolarekin. Azken hiru partiduetan irabazi ostean, finalerako pasea lortu zuten eta Behobide eta Uzkudun izango dituzte aurkari, duela hilabete beze-la.

Laskurainek denboraldi ona izan du, partida batzuk galdu baditu ere, gehienetan garaile izan baita. Orain Irujo txapeliduna bikote duela jokatuko ditu hurrengo bi partiduetan (ikus agenda).

Iñaki Jauregik parte hartu du DV torneoan eta Zaldibarko txapelketako finalerdietan, baina bi partiduetan galduta, ez da finalera pasatu. Urte berrian hasiko da berriz partiduetan jokatzen.



## Sora bigarren dago sailkapenean

Futbol taldeak emaitza onak izan dituzten azkenengo partiduetan. Denbora luzez 3. postuan egon da sailkapenean, eta joan zen asteburuan Elgetaren kontrako partidua irabazi ostean, 2. postura igo dira. Jubenilak lehenengo postuan ja-

rraitzen dute. Kadeteak gero eta hobeto jokatzen ari dira eta azken postutik irtetzea lortu dute. Jubenilek eta kadeteek liga bukatu dute, eta orain igoera eta jeitsierako partiduetan, kopak etb. jokatzen hasiko dira.



## Soraluzetarrak Gasteizko Maratoiardian

Asteburuan izan zen Gasteizko 29. Maratoi erdia, eta 6 soraluzetarrek hartu zuten parte bertan. 2039 lagun artean, honela sailkatu ziren:

Luis Gonzalo Ariznabarreta	01:30:50	600.postuan
Ramon Agirre	01:31:30	651.postuan
Miguel Angel Gil	01:34:06	837.postuan
Jon Arrieta	01:36:11	963.postuan
Koldo Azkorbebeitia	01:36:11	964.postuan
Urko Azkorbebeitia	01:36:12	966.postuan

### EMAITZAK

#### ESKU PILOTA

##### Abenduan 8tik 22ra

• Titin III – Laskurain	22
Gonzalez – Eulate	15
• Chafee – Zubieta	22
Berasaluze IX – Laskurain	15
• Larrañaga – Iza	22
Gonzalez – Jauregi	16
• Etxeberri – Arrasto	22
Cabrerizo – Jauregi	12
• Atxotegi - Loiola	22
Larrañaga – Arrieta	14

#### FUTBOLA

##### Abenduan 16tik 17ra

- Sora 4 - Elgeta 1 (erreg.)
- Sora 3 - Bergara 3 (jub.)
- Bergara 0 - Sora 0 (kad.)

### AGENDA

#### ESKU PILOTA

**Abenduak27xan**, Tolosan  
 • Gabonetako torneoa  
 Chafee - Pascual  
 Irujo - Laskurain

**Abenduak22xan**, 20:30etan, Seguran  
 • Gipuzkoako txapelketako finala  
 Atxotegi - Loiola  
 Behobide - Uzkudun

**Abenduak22xan**, Getxon  
 Irujo - Laskurain  
 Titin III - Eulate

## Aerobikeko klaseak urtarrilean

Datorren urtarrilean hasiko dira berriz aerobikeko klaseak. Abenduan kiroldegian izan ziren arazoan ondorioz, klaseak emateari utzi zioten, baina urtea hasitakoan betiko ordutegiarekin jarraituko dute kiroldegiko instalazioetan.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

**EDURTZA** Kafetegia  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

**ARRANO**  
*tabernia*

Telefona 75 24 09

*“Giro euskalduna eta sanua”*

**ETORRI ETA GOZATU**



**MENDIZABAL**

**OKINDEGIA**

**Kalebarren,10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE**



tel: 943 75 20 81



**EGUNKARIA  
ETXERA ERAMATEN DIZUGU  
GEHIAGO ORDAINDU GABE**

**ETXABURUETA, 4  
20590 SORALUZE  
tlf: 943 75 13 20**

**GURE ZERBITZUAK**

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

**ELIZPE**  
Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

**ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)**

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**



**Ezoi Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02**

**Sukaldaritza tradizionala**

**JABIER ALBERDI**

**HARATEGI**  
ARTISAU ERARA  
**ESPEZIALIZATUA**

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32





# Pil-pilean 10urte, euskaraz eiñ eta eiñ erain

## 1995 urtea. AEKko lokalean.

Herri aldizkaria ateratzeko erabakia hartu du bertako irakasle eta laguntzaile talde batek. **“Beste herrixetan baldin badago, gurian be lortuko dogu”**. Izena? Kalean bolo-bolo dabil euskarazko herri aldizkaria behar dela Soraluzen, noiz sortuko ote den... Pil-pilean dagoela gaia! “Pil-pilean izena eukiko dau ba!” Berriak lortu, lagun baten ordenagailuan idatzi, Donostiako AEKn fotokopiak atera, AEKko ikasleak orrialdeak batu eta grapatzen ipini...

## 1996ko urtarrilaren 27an.

Plaza Barrixan 4 lagun aldizkariak banatzen. Jendea eskatu eta eskatu. Eskuetatik kentzen dizkiete.

**10 urte** etorri eta joan dira ordutik, eta marrazkiloak bere bidea jarraitu du, mantso baina gero eta sendoago. Aldizkari moduan sortu zena, herriko kultur-gintza eta euskalgintzaren ardatza izatera ere iritsi da. Herritar guztien laguntzaz (iragarleak, bazkideak, erakunde publikoak, elkarte eta taldeak, laguntzaileak...), gero eta baliabide gehiago lortu ditu elkarteak eta lanean jarduteko modu egokiagoak aurkitu ditu.







# KULTURgintza

## KULTURgintza

Olentzero antolatzen hasi eta gerora ekitaldi ugari antolatu ditu PII-pileanek, herriko kultur mugimendua- ren ardatz bihurtu den arte. Dagoeneko urtero antolatzen diren hainbat ekimen haundi daude (Olentzero, San Juanak, Gaztañerre...), eta horietako batzuk beste talde eta elkarteekin elkar- lanean antolatzen ditu (eus- kal jaixa, jaixak...)



### Sorgin dantza eta edabe magikoa San Juan suaren inguruan



## HAMARREKO BOROBILA

**Zer behar da** herri bateko kultura berpizteko, ohitura zaharrak bizirik mantentzeko, herri bat kantuan jartzeko, euskaraz irakurzaletzeko, herritarrak motibatuzeko... **Zer behar da, zer?** Proiektu txiki eta umil batean sinestea eta lana sendo eginaz handi egitea. Eta hori da, hain zuzen, lagun askoren artean egin duguna, PII pilean sortu eta herria jantzi, ez da gutxi! Orain, atzera begiratu eta harrotasunez diogu, **PII pilean, zorionak eta urte askotarako!**



### Bertsoak bazkaltzeko eta afaltzeko



### Sagardotegira urteroko bisita





**Euskal Jaiaren barruan sagardo eguna, kantu afaria, kontzertuak...**



**Santiago Santa Anetan, jai giroa ipintzen**



**Gaztañerretan,  
babajanaren ostean erromeria**



**Euskararen aldeko egunetarako  
autobusak**



**Ikastaroak eta kultur errotako  
emanaldiak urtean zehar**



# euskalgintza

Herriko talde, enpresa eta banakako jende askorekin landu du Pil-pileanek euskararen gaia, egutismo desberdinen bitartez. Elkarlanari esker, euskararen erabilpena haunditu eta eremu guztietara zabaltzea lortu da.



**Euskara merkataritzan**



**AEKrekin batera Korrika**



**Berbalagun, euskaldun berriak eta zaharrak barriketan**



**Bai euskarari zirutagiriarekin, denon konpromisoa**

## EUSKARARI BIDEA EGINEZ

1996tik hona, Pil-Pileaneko euskalgintza arloa indartu egin da, koordinazio mekanismoak sortu eta sendotu dira, eragile aktiboen sarea osatzen jarraitu da eta euskal hizkuntza komunitatearen trinkotze bidean aurrera egin da. Pil-Pileaneko euskalgintza euskararen normalizazioa lortzeko helburu argiarekin egituratzen joan da, herrian euskararen erabilera handitzeko dauden egitasmoak bultzatu eta bultzatzen ditu horretarako dauden guneetan parte hartuta, hau da, euskararen normalizazioan eragile bihurtu da. Aurrerantzean, euskalgintza antolatua, bizia eta aktiboa behar dugu Soralezeko arlo guztietan euskaraz normaltasunez bizitzeko, eta hori denon artean eraginda, denok inplikaturako dugu.





# elKarTearen eGiTura seNdoTuta

Pil-pileanen arlo bakoitzak bere arduraduna eta 6-8 laguneko lan-taldea dauzka. Aldizkarian erredakzio batzordea edukiaren kritikak eta proposamenak

lantzeko biltzen da. Kazetariak eta maketatzailerak jarduten dute edukiei forma ematen. Kulturgintzan eta euskalgintzan bilerak egiten dira 15

egunetik behin, kultur ekimenak eta egitasmoak aztertu eta gauzatzeko. Arduradunak bideratu eta koordinatzen ditu guztiak.

## Zuzendaritza Batzordea, elKarTearen gidari

Elkar-tearen norabidea eta oinarriak zehaztea da Zuzendaritza batzordearen funtzio nagusia. Egitura, funtzionamendua, ildo oro-

korak eta egitasmo nagusiak finkatzeko arduraberea du. Gaur egun 6 lagunek osatzen dute: Elene Alberdi, Aitor Madrid,

Amaia Agirre, Maite Etxeberria, Aitor Prieto eta Mikel Santiago.



## esKerrak Zuei!

**Bazkide zareten 326 euskalzaleri,** euskara bultzatzeko eta elkartearen sustengatzeko emandako laguntza eta babesagatik. Zuek zarete elkartearen!

**Publizitatea** jarri duzuen iragarle guztiei, aldizkariaren finantziazioaren laguntzaile nagusi izan zaretelako.

**Pil-Pileanen kide, laguntzaile eta kolaboratzaile** denei, lan-taldeetan eta antolatutako ekintzetan parte hartu eta elkarteak aurrera egin dezan zeregin bota eta gozamen bertan bilatu duzuenoi.

**Herriko talde eta elkartei** denon elkarlanarekin herria bizirik mantentzeagatik.

# OspaKizuNak deNoNtzat!

**Abenduaren 27tik 31ra bitartean** ospatuko da Pil-pilean elkartearen X.urteurrena. Gabonetako karpan egingo dira ekintza guztiak. Aposturik handiena Garagardo festarena izango da. Kristalezko pitxarrak hartuta, **garagardo klase desberdinak edateko aukera** edukiko du bertarutzen denak. Baita gosea asetu ere, piper beteak, txipiroiak, lasaña begetala, txahal okela eta patata frijituak janda.



Karpako paretak argazki, kartel eta aldizkariz osatutako **erakusketak** beteko ditu. Lehengo eta oraingo irudi eta informazioarekin, elkartearen ibilbidearen eta herriaren beraren bila-kaera islatzen da bertan. Pil-pileanen kamiseta, babero, amantal, kantzontzilo, tanga eta poltso berriak salgai jarriko dira.

## eZer eZ ta fesTa!

Lehenengo eguna inaugurazioari dagokio. Iluntziko 19:00etan irekiko da karpa, batukadaren erritmoekin.

## iNuXenTe eGunean, TaPiaren kontzertua



Hilaren 28an, arratsaldeko 17:00etan **umeentzat herri kirolak** izango dira eta gauerako geldituko da emanaldirik erakargarriena: **Joseba Tapiaren kontzertua**. Inuxente eguna izanda gezurra badirudi ere, afa-lostean, gaueko 22:30etan eskainiko du Tapiak bere disko berriaren kontzertua. Aulkietan lasai jarri eta ordubete inguruz kantuez gozatzeko aukera paregabea.

## paRiak bai!

Hilaren 29an karta txapelketa jokatu da iluntzeko 19:00etatik aurrera. Mus, Tute eta Briskan arituko dira parte hartzaileak. Izena emateko: 943751304 edo 605752533an, edo karpan.



## Pil-eGuna



Zapatuan ospatuko da **Pil-pileanen ekitaldi nagusia**, eguerdiko 13:00ean hasita. Herriko taldeen, bazkideen eta kide ohien partaidetzarekin, musikaz, dantzaz eta bestelakoez gozatu ahal izango da. Gainera, **Pil-pileani buruzko bideoa** proiektatuko da pantalla batean, urteotako ibilbidea erakusten duena. Ondoren, **bazkaltzeko txanda**. Txartelak Iratxo goxo denda eta Karpan bertan erosi ahal izango dira, 12 eurotan bazkideentzat, eta 14 gairontzekoentzat. Bazkalostean **kantatzeko ordua** helduko da Gartxot eta Edortaren laguntzarekin. Eta bukatzeko, **Galtzagorri Txarangak kalejiran** alaituko ditu karpa eta inguruko bazterrak.

## GaBon zaHar fesTa!

31 iluntzean barra zabalik egongo da, garagardo festara joateko azken aukera. Gauerditik aurrera  **festa erraldoia** egongo da karpan: musika bereziarekin dantzaldia, txanpain botila eta kubatak nahi duten guztientzat...festa giroa goizaldera arte, urte berriari ongi etorria emateko.





# VIDAL

## frutadenda

Etxaburueta 2  
Tel. 943752055

# argitek

ELECTRICIDAD • ELETRIZITATEA

David Rascón  
607 486 428

Instalaciones y reformas eléctricas en vivienda e industria

Instalazio eta erreforma elektrikoak etxebizitza eta enpreetan

Baltegieta, 17 • 20590 SORALUZE

# MABE

## ILEAPAINDEGIA



ESTETIKA  
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

# Juan Mari

## Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak



Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



# Belarrak

## Loradenda eta belardenda

Gabonetako oparien eskaerak egiteko deltu:

Telf. 943 75 30 11

# TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

# GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

## Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



# HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



# K.M. Desing

Diseinua eta Sormena

Polígono Amillage, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434

# HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

## Argazki zaharra



Iturria: Iturria: Lurdes Maiztegi

### Belengo portalian...

1957ko argazkixa da. Abenduan 24an, iluntzixan, dantza taldeko jentia Ayerra transportistia kamioi gainera igo eta herrixan zihar bueltia egitten zeben.

Ezkerretik eskumara: Lamariano, Marilena Urizar, Belen Aristi, Lurdes Maiztegi eta Anabel Al-dazabal.

## Lehenagoko ferixetako komerixak

Antzuolatarrak Bergarara juaten zian ferixara sasoi baten oinezian. Eta orduan iñork ez zekixan ixa erderarik be. Dana euskeria zan. Eta bidian zoiazela asto eta guzti, han agertu ziran Guardia Zibila edo Mikeletiak, eta galdetu zotsen:

- ¡A ver! ¡Documentación!

Etara zittuen beren papelak, eta gero:

- ¿a dónde van ustedes?

Eta ahal zeben moduan esplikau zotsen:

- A la feria... a la mansana... a la Bergara!

Iturria: Ane Orbea (Amamak kontatutako ipuinak)

### Lehiaketa

1996xan...



Aurreko  
aleko  
erantzuna

urtarrilan 27xan, Pil-pileanen lehenengo alia banatu zan herriko kalietan. Orduan oindiokan ez zian aldizkarixak buzoietan sartzen eta eskura emoten zittuen barixaku iluntzixetan Plaza Barri inguruan-eta.

### HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Aldarera begira,  
ze aldetan zeguan  
pulpito zaharra?

- Eskuman
- Ezkerrian
- Erdixan

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04 ra**  
edo e-mail bat bidal ezazu:

**pilpilean@euskalnet.net**

Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE  
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659  
E-maila: mdnievas@mgsg.es

SARIA



Norberarendako  
aseguru bat

AURREKO ALEKO  
IRABAZLEA  
Lola Sanchez  
SARIA  
Fisioterapia saio bat  
Gogortuz zentroan







# UgARAXO

2006ko abendua

## Gabon gabonete!!



## "AROTZ-ENEA" KO IRTEERA

Azaroaren 20an joan ginen Arotz-Eneara eta itzulera 21ean izan zen. Nafarroan dago, Etxarri Larraunen.

Heldu ginenean, etxearen sarreran borobilean jarri eta esku-jolas bat egin genuen begiraleekin eta etxea ezagutu genuen.

Maletak logeletan utzi ondoren, jolastera joan ginen: futbolean, saskibaloian, ping-pong-ean,.... Lehenengo egunean mendira joan ginen eta han Margarita behiaren hezurak zeuden. "Prozesionaria" ren habia ere ikusi genuen.

Eguzki-zulon desioa eskatu ondoren, Tomas-zulo kobazuloan sartu ginen eta han ardiaren ilea eta hezurak ikusi genituen.

Arotz-Eneara heldu ginenean, gaua zen eta piska bat jolastu eta afaldu ondoren, diskoteka hasi zen. Nahiko dantza egin ondoren, lotara joan ginen.

Hurrengo goizean gosaldu eta pabeloira joan ginen jolastera eta gero euria zenez, ez bustitzeko



kapa hori batzuk jantzi genituen eta herria ezagutzera joan ginen. Perratokia, konjurulekua, labea,.... ikusi genituen eta "haritza"ren historiaoa kontatu ziguten.

Bazkaltzeko ordua zenez, Arotz-Eneara bueltatu ginen eta hirurak aldean autobusean sartu eta, pena handiz, Soralezera bueltatu ginen.

GEHIEN GUSTATU ZITZAIGUNA PERRATOKIA IZAN ZEN, BATEZ ERE, UXUE BEGIRALEAK MANDOARENA EGIN ZUENEAN.





**TXIKI - INKESTA**

Zelakuak dira Olentzero eta Mari Domingi? Ze ekarriko dotsue?  
Eta zure familixakueri?

**MARIA OLABARRIA, 7 URTE**

Onak dira Olentzero eta Mari Domingin. Mendixan bizi dira, etxe zahar baten bixak alkarrekin. Babybonen erropak ekartzeko eskatuko dotset.

**XABIER GALLEGO, 7 URTE**

Mendixan bizi dira, baina ez naiz inoiz beren etxian egon. Nik "kurba zoruak" ekartzeko eskatuko dotsat eta amatxondako kolonia.

**MIREN DOMINGUEZ, 7 URTE**

Mendixan bizi dira, harrizko etxe baten. Muñekendako kotxia eskatu dotset, apurtuta dakat eta. Nere amatxori mendiko botak eta aitaxori txamarra bat ekartzia gustatuko jatan.

**AITOR BARRUTIA, 7 URTE**

Hona etortzen diranak ez dira benetakuak; harek mendixan bizi dira. Asto gainian ibiltzen dira, baina nere lagun batek tratorian ikusi zeban Olentzero behin. Nik Nintendua eskatu nahi dotsat eta aitaxori asko gustatzen jakoz kamisetak eta kantzontziluak.

**ANE AIZPURUA, 7 URTE**

Pixkat barrixa dan etxe baten bizi dira, mendixan. Gustauko jatan ezagutzia. Nik eskatu dotsat Lego ekartzeko eta Garazindako auto txikixak.

**XABIER OREGI, 7 URTE**

Etxe zahar baten bizi dira mendixan eta astua dake. Nik kotxiak ipini eta bizkor urtetzen daben jolas bat eskatuko dotsat. Nere anaia-ri igual motorren bat edo zeeze ekarriko dotsa.

**GABON KANTA**

OLENTZERO BEGI GORRI  
NUN HARRAPATU DEK ARRAIN HORI  
ZURRIOLAKO HARKAITZETAN  
BART GAUEKO HAMAIKETAN

OLENTZERO BEGI GORRI  
NUN HARRAPATU DEK ARRAIN HORI  
ZUBI HONTAKO ARROKETAN  
TXAKUIRRA LOTAN ZEGUANIAN.





## DENBORAPASAK

Zenbat denbora behar duzu sei desberdintasunak topatzeko?



### IGARKIZUNAK

Hutsa, xutik ezin egon;  
betea, nolana egi.




A zer komeriak nireak!  
Ikusten dudak guzti-guztia  
errepikatu egiten dut!



# Gabonetako Pil-opariak!

salgai abenduaren 20tik 31ra  
Gabonetako karpan



## Joane Somarribaren Plana

Euskadiko Kutxarekin etorkizun on bat edukitzea opari bat da.



2006. urtean egindako ekarpen guztiak batuta, opariak jaso ditzakezu, edo bestela, aurtengo berritasun modura, Travel Club Puntuetan horien baliokidea eskuratu. Lehenbailen erreserba itzazu zure ohiko sukursalen edo CLNet-en.

Euskadiko Kutxak erraztu egiten dizu finantzazioa, zure ekarpenak egin ahal izateko eta horrela zure zerga-onurak mantentzeko.



Beti jakin izan dut zer nahi dudan, etapa berri honetan nire bidelaguna Euskadiko Kutxa izango da. Talde bikain bat helmuga bakar batekin: etorkizuna hobeto prestatzea.

*Joane Somarribaren*

Aurreikuspen  
Pentsio  
Planak

3 Tour eta 2 Giro irabazi ditu, erlojuaren aurka munduko txapeliduna izan da...

	Era guztiarako jantaria prestatzeko funtzio antzeko kazola modernoa, itsaketaren aurkakoa	<b>Guztira 2.500€ko ekarpena eginez gero</b> Askotarako Kazola Elektrikoa ... edo 1.000 Puntu Travel Club
	Dotorea, praktikoa eta urari aurre egiteko larru sintetikoakoa	<b>Guztira 3.500€ko ekarpena eginez gero</b> Larru sintetikoak aterki-ontzia ... edo 1.300 Puntu Travel Club
	Portzelanazko egina eta mikro-uhin eta ontzi-garbigailurako egokia	<b>Guztira 5.000€ko ekarpena eginez gero</b> Portzelanazko baxera 20 pieza ... edo 2.000 Puntu Travel Club
	Su guztietako egokia, balta induktziarako ere.	<b>Guztira 5.000€ko ekarpena eginez gero</b> Fagor kafe-makina ... edo 2.000 Puntu Travel Club
	Altzainu herdoilgaitzarekin eta segurtasun osoko sistemarekin egina	<b>Guztira 8.000€ko ekarpena eginez gero</b> Fagor Eltze azkar herdoilgaitza ... edo 3.200 Puntu Travel Club
	Era guztietako formatuak irakurtzen dituzten sotoi kutsugari eta ingurutzalea eskaintzen du.	<b>Guztira 15.000€ko ekarpena eginez gero</b> Home Cinema + DVD ... edo 7.000 Puntu Travel Club

Erreskateak eta prestazioak urteko ekarpen baturatik kenduko dira. Opariak eskatzeko epea: 2006ko azaroaren 13tik abenduaren 31ra. Promozio honetan ageri den artikuloren bati ahaliz gero, Euskadiko Kutxak agintzen dizu antzeko ezaugarriak dituen beste bat emango dizula horren ordez.


**Planetan berriena ezagutu dezazula nahi dugu:**  
Kudeaketa  
Alternatiboko Plan  
Berria

Zure Ondarea Euskadiko Kutxak dituen Plan guztien artean dibertsifikatzen lagunduko dizun Plan berria, errentagarritasun-aukerarik onenak jaso ditzazun. Alde horretatik **Kudeaketa Alternatiboko Plan Berriak** edozein ziklo ekonomikotan dauden aukerak atzeman eta horiek aprobetxatzea du helburu.





*Fresaketa teknologia*



**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

# Ion Murgizu Pinturak

- Margoketa orokorrean -

Empapelatuak,

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Telefona 943751324  
Mugikorra 652777030  
Ezoziko etorbidea 24 2 behea  
20590 Soraluze